


Langabeak 5.800 gutxiago dira, eta langabezia-tasa % 7ra jaitsi da 2023ko 4. hiruhilekoan Euskal AEn

Azken urtean, langabeak 16.700 gutxiago izan dira, eta langabezia-tasa % 8,5etik % 7ra jaitsi da

Eustaten datuen arabera, Euskal AEko lan-merkatuari buruzko 2023ko laugarren hiruhilekoko datuek islatzen dute aurreko hiruhilekoan baino 500 landun gehiago eta 5.800 langabe gutxiago daudela. 2023ko laugarren hiruhilekoan, langabeen kopurua 73.100era iritsi dela eta landunen kopurua, berriz, 976.400era iritsi dela zenbatetsi da. Euskal AEko langabezia-tasa % 7 izan da, hau da, 2023ko hirugarren hiruhilekoan baino bost hamarren txikiagoa. Horrelako langabezia-tasa bat ez da lortu euskal ekonomian 2008. urteaz geroztik.

Landunen eta langabeen kopuruaren bilakaeraren ondorioz, jarduera-tasa % 56ra iritsi da 2023ko laugarren hiruhilekoan, eta, beraz, aurreko hiruhilekoko baino 0,3 portzentaje-puntu txikiagoa izan da.

Tasa de ocupación de la población de 16 a 64 años de la C.A. de Euskadi, por sexo y trimestre



Fuente: Eustat. Encuesta de población en relación con la actividad

Lurralde historikoei dagokienetz, eta aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, Araban okupazioak gora egin du eta 2.000 langile gehiago daude. Bizkaian eta Gipuzkoan, berriz, 900 eta 600 landun gutxiago daude, hurrenez hurren. Hiriburuen kasuan, Bilbon 1.600 landun gehiago daude, Gasteizen 400 gutxiago, eta Donostian, berriz, 1.500 gutxiago.

Okupazioaren igoerarik handiena emakumeen kasuan gertatu da (+900), eta gizonen kasuan, berriz, 300 landun gutxiago daude. Nazionalitatea kontuan hartuta, atzerriko nazionalitatea duten landunak 3.000 gutxiago dira (+% 3,4), eta Espainiako nazionalitatea dutenak, berriz, 2.500 gutxiago (-% 0,3).

Okupazioak industriaren sektorean baino ez du gora egin

Euskal AEko landunen kopuruak gora egin du industrian (6.100 landun gehiago dira, hots, +% 3,1), eta behera gainerako sektoreetan: zerbitzuen sektorean 4.000 gutxiago dira (-% 0,6), eraikuntzan 1.100 gutxiago (-% 1,9), eta lehen sektorean 600 gutxiago (-% 7,2).

Okupazio-tasa (16-64 urteko landunek adin horietako pertsonen guztizkoan duten ehunekoa) 0,1 portzentaje-puntu igo da aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, eta % 70,5era iritsi da. Tasa hori % 73,4ra iritsi da gizonen kasuan, eta % 67,5era emakumeen kasuan.

Nazionalitateari dagokionez, okupazio-tasarik handiena Espainiako nazionalitatea duten pertsonena da (% 71,8), eta 0,2 portzentaje-puntu jaitsi da aurreko hiruhilekoarekin alderatuta. Atzerriko nazionalitatea duten pertsonen kasuan, berriz, tasa 2,2 puntu igo da, eta % 59,8ra iritsi da.

Lurralde historikoei dagokionez, okupazio-tasarik handiena Gipuzkoakoa da (% 71,7), baina 0,5 portzentaje-puntu jaitsiera izan du aurreko hiruhilekoarekin alderatuta. Haren atzetik, Arabako tasa % 70,3ra iritsi da, eta portzentaje-puntu bateko igoera izan du aurreko hiruhilekoarekin alderatuta. Azkenik, Bizkaiko okupazio-tasak 0,1 portzentaje-puntu igoera izan du, eta % 69,8ra iritsi da.

Soldatuko langileen kontratazio-modalitateari dagokionez, kontratu mugagabeak dituzten pertsonen kopuruak gora egin du aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, eta 3.800 gehiago dira. Aurreko urtearekin alderatuta, berriz, 25.600 gehiago dira.

Hamar etxetik seik pertsona aktibo guztiak dituzte okupatuta

Zenbatetsitakoaren arabera, 2023ko laugarren hiruhilekoan 909.500 etxe inguru daude Euskal AEn, eta, haietatik, herenek ez dute pertsona aktiborik (aurreko hiruhilekoan baino 2.000 etxe gehiagok). Hamar etxetik seitan, pertsona aktibo guztiak daude okupatuta (1.800 familia gutxiagotan). Gainera, etxeke pertsona aktibo guztiak langabezian dituzten 25.200 etxe daude, hau da, aurreko hiruhilekoan baino 200 gehiago.

2023ko laugarren hiruhilekoko langabezia-tasa % 7koa izan da, hau da, aurreko hiruhilekoko baino puntu-erdi txikiagoa

Euskal AEko langabeen kopurua (hau da, enplegua bilatzen ari diren, bilaketa-kudeaketa aktiboak egiten dituzten eta, gainera, lan egiteko prest dauden pertsonen kopurua) 73.100ekoa izan da urteko laugarren hiruhilekoan (aurreko hiruhilekoan baino 5.800 gutxiago). Emakume langabeak 34.500 dira laugarren hiruhilekoan, hau da, 4.400 gutxiago, eta gizon langabeak, berriz, 38.600 dira, hau da, 1.400 gutxiago.

2023ko laugarren hiruhilekoko datuen arabera, langabezia-tasa % 7koa izan da, hau da, aurreko hiruhilekoko baino puntu-erdi txikiagoa. Emakumeen langabezia-tasak 0,8 portzentaje-puntu jaitsiera izan du eta % 6,9ra iritsi da, eta gizonena, berriz, % 7,1ekoa izan da, hau da, 0,2 portzentaje-puntu txikiagoa.

Nazionalitateari dagokionez, langabeen kopuruak behera egin du Espainiako nazionalitatea duten pertsonen kasuan, eta 3.500 pertsona gutxiago dira (53.900 guztira). Atzerriko nazionalitatea dutenen kasuan, berriz, langabeen kopurua 19.200ekoa izan da, eta, beraz, 2.400 gutxiago dira.

Lurralde historikoei dagokionez, Araban behera egin du langabeen kopuruak, eta 200 gutxiago dira. Hortaz, langabezia-tasak 0,2 portzentaje-puntu jaitsiera izan du, eta % 7,6ra iritsi da. Gipuzkoan, 18.600 langabe daude, hau da, 3.400 gutxiago. Hortaz, langabezia-tasak 0,9 portzentaje-puntu jaitsiera izan du, eta % 5,4ra iritsi da. Bizkaian, langabeak 2.400 gutxiago dira. Hortaz, langabezia-tasak 0,4 portzentaje-puntu jaitsiera izan du, eta % 7,7ra iritsi da.

Hiriburuei dagokienez, Donostian 600 langabe gutxiago daude, Bilbon 1.000 gehiago eta Gasteizen, berriz, 400 gehiago, aurreko hiruhilekoarekin alderatuta.

EUROSTAT - Europar Batasuneko Estatistika Bulegoaren arabera, 2023ko azaroan urtaroen arabera ez den Europar Batasuneko langabezia-tasa % 5,9koa izan da, eta Espainiakoa, berriz, % 11,9koa.

Azken urtean, landunen kopuruak % 1,4ko igoera izan du, eta langabezia-tasa % 8,5etik % 7ra jaitsi da

Euskal AEko landunen kopuruak % 1,4ko igoera izan du 2022ko laugarren hiruhilekoarekin alderatuta, eta 13.500 landun gehiago dira. Langabezia-tasak 1,5 portzentaje-puntuko jaitsiera izan du (% 8,5etik % 7ra jaitsi da), eta 16.700 pertsona gutxiago daude, beraz, langabezia-egoeran Euskal AEn, 2022ko laugarren hiruhilekoarekin alderatuta.

Hiruhilekoko batez besteko afiliatuen % 97,1 lanean ari dira, LANEren irizpidearen arabera

Zenbatetsitakoaren arabera, Euskal AEn 935.200 pertsona daude afiliatuta hiruhilekoan, batez beste, hau da, Euskal AEn bizi diren eta Gizarte Segurantzaren afiliatuta dauden pertsonak, hiruhilekoan lan egindako egun kopuruaren arabera haztatuak. Haietatik, % 97,1 landunak dira (908.400 pertsona), BJAk erabiltzen dituen Lanaren Nazioarteko Erakundearen (LANE) irizpidearen arabera.

BJAren LANE landunetatik, 39.000 (% 4) ez daude Gizarte Segurantzaren afiliatuta, funtzionarioen mutualitate publikoetakoak direlako edo beste egoera batzuetan daudelako.

Langabeen % 37,5 ez daude erregistratutako langabe gisa jasota

Zenbatetsitakoaren arabera, Euskal AEn 87.700 langabe daude Lanbiden erregistratuta hiruhilekoan, batez beste (hau da, Euskal AEn bizi diren eta inkesta egin den unean Lanbiden —erregistratutako langabeziako kategoriaren batean— erregistratuta zeuden pertsonak). Haietatik, % 49,4 langabeak dira, LANEren definizioaren arabera (43.400 pertsona). BJAren LANE langabeen % 37,5 ez daude langabe gisa erregistratuta Lanbiden (27.400 pertsona), baina enplegu-eskatzaileen beste kategoria batzuetan egon daitezke.

Euskal AEko jardueraren arabera biztanleria. 2023/IV

	2023/IV	2023/III	t/t-1	
	Mila	Mila	Mila	%
16 URTE ETA GEHIAGOKO BIZTANLERIA	1.875,7	1.873,9	+1,8	0,1
BIZTANLERIA AKTIBOA	1.049,5	1.054,9	-5,4	-0,5
Gizonak	546,5	548,3	-1,8	-0,3
Emakumeak	503,0	506,5	-3,5	-0,7
Araba/Álava	160,7	158,8	+1,9	+1,2
Bizkaia	546,4	549,7	-3,3	-0,6
Gipuzkoa	342,5	346,4	-3,9	-1,1
Vitoria-Gasteiz	119,1	118,3	+0,8	+0,7
Bilbao	168,2	165,6	+2,6	+1,6
Donostia / San Sebastian	86,2	88,4	-2,2	-2,5
Beste udalerriak	676,1	682,5	-6,4	-0,9
Espainiarrak	939,4	945,2	-5,8	-0,6
Atzerriko nazionalitatea	110,2	109,6	+0,6	+0,5
BIZTANLERIA LANDUNA	976,4	975,9	+0,5	+0,1
Gizonak	508,0	508,3	-0,3	-0,1
Emakumeak	468,5	467,6	+0,9	+0,2
Araba/Álava	148,4	146,4	+2,0	+1,4
Bizkaia	504,2	505,1	-0,9	-0,2
Gipuzkoa	323,8	324,4	-0,6	-0,2
Vitoria-Gasteiz	108,6	108,2	+0,4	+0,4
Bilbao	152,7	151,1	+1,6	+1,1
Donostia / San Sebastian	81,1	82,6	-1,5	-1,8
Beste udalerriak	634,0	633,9	+0,1	+0,0
Espainiarrak	885,4	887,9	-2,5	-0,3
Atzerriko nazionalitatea	91,0	88,0	+3,0	+3,4
Nekazaritza, abeltzaintza, arrantza	7,7	8,3	-0,6	-7,2
Industria	200,7	194,6	+6,1	+3,1
Eraikuntza	55,7	56,8	-1,1	-1,9
Zerbitzuak	712,3	716,3	-4,0	-0,6
Soldatakoa	801,3	803,3	-2,0	-0,2
Lan-kontratu mugagabearekin	629,5	625,7	+3,8	+0,6
- Aldi baterako kontratuarekin eta kontraturik gabe	171,7	177,6	-5,9	-3,3
Soldatarik gabeak	175,2	172,6	+2,6	+1,5
BIZTANLERIA LANGABEA	73,1	78,9	-5,8	-7,4
Gizonak	38,6	40,0	-1,4	-3,5
Emakumeak	34,5	38,9	-4,4	-11,3
16 - 24 urte	8,1	9,9	-1,8	-18,2
25 - 44 urte	33,8	36,6	-2,8	-7,7
45 urte eta gehiago	31,2	32,5	-1,3	-4,0
Araba/Álava	12,2	12,4	-0,2	-1,6
Bizkaia	42,2	44,6	-2,4	-5,4
Gipuzkoa	18,6	22,0	-3,4	-15,5
Vitoria-Gasteiz	10,5	10,1	+0,4	+4,0
Bilbao	15,5	14,5	+1,0	+6,9
Donostia / San Sebastian	5,1	5,7	-0,6	-10,5
Beste udalerriak	42,1	48,6	-6,5	-13,4
Espainiarrak	53,9	57,4	-3,5	-6,1
Atzerriko nazionalitatea	19,2	21,6	-2,4	-11,1
BIZTANLERIA EZ-AKTIBOA	826,1	819,0	+7,1	+0,9
ETXEGUNEAK	909,5	909,1	+0,4	+0,0
Pertsona aktiboekiko familia-etxeak	604,8	606,3	-1,5	-0,2
Denak okupatuak	545,6	547,4	-1,8	-0,3
Denak langabeak	25,2	25,0	+0,2	+0,8
Pertsona aktiborik gabeko familia-etxeak	304,7	302,7	+2,0	+0,7

Aurtengo urtearen datuak behin-behinekoak dira eta aurreko urtekoak ikusatu dira urte horretako urtarilaren oinarri 1ekiko populazioaren gaurkotzearekin.

t/t1 Behatutako azken hiruhilekoaren aldakuntza aurreko hiruhilekoaren aldean

Data 2023ko Urriaren 20a

Iturria: Eustat. Biztanleria jardueraren Arabera sailkatzeko inkesta

Euskal AEko jardueraren arabera biztanleria. Tasa nagusiak. 2023/IV

	2023/IV	2023/III	t/t-1 (p.p.)
JARDUERA-TASA	56,0	56,3	-0,3
Gizonak	60,7	60,9	-0,2
Emakumeak	51,6	52,0	-0,4
Araba/Álava	57,4	56,7	+0,7
Bizkaia	55,6	55,9	-0,3
Gipuzkoa	55,9	56,7	-0,8
Vitoria-Gasteiz	57,0	56,4	+0,6
Bilbao	56,8	55,9	+0,9
Donostia / San Sebastian	55,1	57,0	-1,9
Beste udalerriak	55,7	56,3	-0,6
Espainiarrak	54,7	55,1	-0,4
Atzerriko nazionalitatea	70,2	69,8	+0,4
OKUPAZIO-TASA (16 urtetik 64ra)	70,5	70,4	+0,1
Gizonak	73,4	73,4	+0,0
Emakumeak	67,5	67,4	+0,1
Araba/Álava	70,3	69,3	+1,0
Bizkaia	69,8	69,7	+0,1
Gipuzkoa	71,7	72,2	-0,5
Vitoria-Gasteiz	69,7	68,6	+1,1
Bilbao	70,1	69,1	+1,0
Donostia / San Sebastian	73,0	75,0	-2,0
Beste udalerriak	70,4	70,5	-0,1
Espainiarrak	71,8	72,0	-0,2
Atzerriko nazionalitatea	59,8	57,6	+2,2
LANGABEZIA TASA	7,0	7,5	-0,5
Gizonak	7,1	7,3	-0,2
Emakumeak	6,9	7,7	-0,8
16 - 24 urte	14,8	16,3	-1,5
25 - 44 urte	7,9	8,6	-0,7
45 urte eta gehiago	5,5	5,7	-0,2
Araba/Álava	7,6	7,8	-0,2
Bizkaia	7,7	8,1	-0,4
Gipuzkoa	5,4	6,3	-0,9
Vitoria-Gasteiz	8,8	8,5	+0,3
Bilbao	9,2	8,8	+0,4
Donostia / San Sebastian	5,9	6,5	-0,6
Beste udalerriak	6,2	7,1	-0,9
Espainiarrak	5,7	6,1	-0,4
Atzerriko nazionalitatea	17,4	19,7	-2,3
INAKTIBOTASUN TASA	44,0	43,7	+0,3

Aurtengo urtearen datuak behin-behinekoak dira eta aurreko urtekoak ikuskatu dira urte horretako urtarriaren oinarri 1 ekiko populazioaren gaurkotzearekin.

t/t1 Behatutako azken hiru hilekoaren aldakuntza aurreko hiru hilekoaren aldean

p.p = Aldea portzentajezko puntutan

Data 2023ko Urriaren 20a

Iturria: Eustat. Biztanleria Jardueraren Arabera sailkatzeko Inkesta

Informazio gehiago:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa Zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tel.: 945 01 75 62